

Petritegi

Istorio txikietan, mezu handiak



Aitona eta txepetxa

Bazen behin, Astigarragako sagasti batean bizi zen txepetxa eder bat. Txepetxa gure mendietako txoririk txikiena da, eta oso alaia izateaz gain -urte guztian kantatzen du- oso estimatua da gure baserrietan, intsektuez eta harrez elikatzen denez, sagastietarako oso onuragarria delako.

Izugarri langilea zen aitona baten sagastian bizi zen gure txepetxa. Aitona hau sagardogilea zen eta ahalegin haundiz eta jakituria askorekin lantzen zuen bere sagastia, bere aitaren eta aitonaren ikasitakoa errespetatuz. Negu gorrietan, adibidez, babesa falta zenean, txepetxarentzako kaxa txiki batzuk jartzen zituen aitonak sagastian...

Urte batean, auzotarrek konbenzituta, Astigarragako Santiagomendiko gailurrean Pazkoko Bigarrenean ospatzen zen blankolari txapelketan parte hartu zuen aitonak. Sagardogile fina izateaz gain, oso trebea omen zen eskopetarekiko tiroan! Txapelketa honetan, 60 metrotara jartzen zen diana batean asmatu egin behar zen. Lehenik apaizak botatzen zuen tiroa, gero alkateak, eta geroago parte-hartzaile guztiak, pezeta l inskribatzeko ordaindu behar zutelarik. Irabazleentzat, bildutako diru guztiak.

Eta zeinek irabazi zuen? Bai, aitonak. Berak asmatu zuen diana erdi-erdian eta saria eskuratu zuen. Auzotarrak gonbidatu zituen baserrira sagardoa edatera. Ospatzen ari zirela, gizon batek esan zuen inbiritz beteta: -"Eta kasualitate hutsez asmatu baldin badu aitonak Santiagomendin? Hain trebea bada... botako al zuen han sagarrondoan ikusten den txepetxa hura?"

Denek begira zituela, aitonak eskopeta hartu eta tiro egin zuen, baino... -"Kar, kar, kar! Txepetxa ihes doa. Esan bezela, kasualitatez irabazi du. Banoa!"- esan zuen gizon bekaiztiak.

Gazte batek galdetu zion aitonari: -"Oso urruti zegoen txepetxa, ezta?". Eta aitonak erantzun zion: -"Ez seme; nahita egin det kale; sariaren dirua baino gehiago laguntzen dit neri txepetxa horrek. -Gehiago lagundu, baino nolatan? -Nere sagastian dauden zomorro kaltegarriak jaten ditu eta bere kantuarekin alaitzen dizkit egunak. Horrelako laguntzarik ezin da diruz ordaindu."

Elkarlana eta errespetua beharrezkoak direlako.

Elkarrekin gehiago garelako.

Petritegi eta txepetxa.

Petritegi eta zuek.

Sagardoaren alde.

